

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HERRITARREN PARTAIDETZAREN, GARDENTASUNAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

Herritarren Partaidetza

2020an auzoetan dinamizazio eta partaidetza sozialean laguntzeko proiektuak egiten dituzten auzo elkarteentzako dirulaguntzen deialdi publikoa ebaztea

2019ko abenduaren 20an egindako ohiko bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak aurretiaz onetsi zuen Vitoria-Gasteizko udalerriko auzo elkarteei 2020rako dirulaguntzak emateko deialdia, eta 180.000,00 euro esleitu zizkion deialdiari.

Deialdiaren oinarrietan eskatutakoaren arabera aurkeztutako dokumentazio guztia balioetsi ondoren, organo instrukzio-egileak eman beharreko dirulaguntza kalkulatu du, deialdiaren berriazko oinarrietan jasotako balioespen irizpideei jarraituz.

2020ko maiatzaren 21eko txostenean, gogoeta egiten da alarma egoera deklaratzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri zenetik bizi izan dugun aparteko osasun-alertaz, baita deialdira aurkeztu diren proiektuen barruko jarduerak garatzeari begira dituzten ondorioez ere.

Horren aurrean, deialdian parte hartu duten elkarteak jakitun dira jarduera horietako asko ezin izan direla egin, ezta egingo ere, eta proiektuetako jardueretako asko zirkunstantzia aldakorretara eta osasun agintaritzak unean-unean ezartzen dituen arauetara egokitu beharko direla. Horrenbestez, proiektuko jarduerarik aldatu nahi bada idatziz eskatu beharko zaio Udalari, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren bitartez, eta hark aztertuko du aldaketaren bideragarritasuna, legezkoa eta egoki den ebaztearren, eta jarraipena eta kontrola kudeatuko, baldintza hauek kontuan hartuz:

- Alarma egoerak eragindako zirkunstantziak.
- Deialdiaren xedea nabarmen ez aldatzea.
- Alarma egoeraren aurretik prestatutakoen antzeko izaera duten jarduerak izatea.
- Hirugarrenen eskubideei kalterik ez egitea.
- Eskabidea jarduerak egiteko epea amaitu aurretik egitea.

Orobat, elkarteak jakitun dira egiten ez diren jardueren aurrekontua itzuli egin beharko dutela deialdiaren berriazko oinarrietan ezarritako justifikazio-epean, baita egitea ezinezko gertatzen den jarduerari dagokiena ere.

Txosten-proposamenak, batetik, deialdiaren oinarriak aintzat hartuta zein jarduerari ez zaion dirulaguntzarik ematen zehazten du, arrazoituz (txangoak eta lantegi zein jardueretarako materialak); bestetik, zein jarduerak jasoko duen dirulaguntza, oraingo zirkunstantzia bereziak kontuan hartuz eta unean-unean ezartzen diren osasun neurriei egokituz.

Deialdiaren oinarrietan bildutako balioespen irizpideei jarraituz lortutako puntuazioaren arabera egin da onartutako eskabideei laguntza emateko proposamena. Emateko proposamenak berekin dakar lokalak erabiltzen uzteko baimena.

Hori guztia ebazpen honen I. eranskinean zehazten da.

Bestetik, 7.11.5 ordenantza fiskalaren V. atalaren ildotik, eta deialdiaren oinarrietan bildutako irizpideak kontuan hartuz, Vitoria-Gasteizko auzo elkarteak zortzigarren tarifa (gizarte etxeetako espazioak erabiltzeagatik tasa) ordaintzetik salbuestea proposatzen da, espazioa erabilgarri badago eta egitekoa den jarduera diruz lagundutakoa bada, eta unean-unean osasun agintaritzak ezartzen dituen erabilera arauak betez.

Diruz lagundutako jarduerak gizarte etxeetako espazioetan egin nahi dituzten elkarteek horiek erabiltzeko eskabide ofiziala aurkeztu beharko dute gizarte etxeetan, eta erabiltzeko tasa ordaintzetik salbuesteko ere eskatu beharko dute, deialdiaren berariazko oinarrietako 2.4 puntuan zehaztutakoaren ildotik. Dena delako zentroan auzo elkarte bakoitzarekin adostu eta ebartziko da eskabidea, erabilgarri dauden daten eta espazioen arabera eta COVID-19a dela eta unean-unean emandako osasun arauak kontuan hartuz.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra —eta testuinguru honetan, 17.3eta 19.4 artikulua bereziki—, lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua —61. eta 64. artikulua bereziki—, COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, Udalaren Dirulaguntzak arautzeko Ordenantza, eta deialdiaren berariazko oinarriak aintzat hartuta, eta eskumenak eskuordetzeari buruz alkateak 2019ko ekainaren 21ean emandako dekretua zein Udalaren Dirulaguntzak arautzeko Ordenantzaren 5.1 artikulua eta Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 127.1.g) artikulua ikusirik, Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen zinegotzi ordezkariak proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena: Gazteluen Auzoa elkarteak aurkeztutako txangoa diruz lagun daitezkeenetatik kanpo uztea. Jarduera hori ez da ez proiektuak balioestean ez gastuen justifikazioan kontuan hartuko, deialdiaren 2.2 oinarrian zehazten den bezala.

Bigarrena: Cauce Vecinal, Gazteluen Auzoa eta Salburua-Burdinbide elkarteak aurkeztutako lantegi zein jardueretarako materialak diruz lagun daitezkeenetatik kanpo uztea.

Hirugarrena: gainerako eskabideak onartzea, 2020rako planteatzen dituzten jarduerak bat datozelako deialdiaren helburuarekin: partaidetza dinamizatzea, gizarte-kohesioa suspertzea, gizalegezko jokabideak sustatzea, integrazioa bultzatzea, eta auzokoen bizi-kalitatea hobetzea.

Laugarrena: auzo elkartei ebazpen honen I. eranskinean zehaztutako dirulaguntzak eman eta ordaintzea, 2020an jarduera proiektuak egin ditzaten; guztira 180.000,00 euro emango dira.

Bosgarrena: alarma egoera deklaratzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri zenetik bizi izan dugun aparteko osasun-alerta kontuan izanik, proiektuetako jardueretako asko zirkunstantzia aldakorretara eta osasun agintaritzak unean-unean ezartzen dituen arauetara egokitu beharko dira. Ildo horretatik, proiektuko jarduerarik aldatu nahi bada idatziz eskatu beharko zaio Udalari, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren bitartez, eta hark aztertuko du aldaketaren bideragarritasuna, legezkoa eta egoki den ebaztearren, eta jarraipena eta kontrola kudeatuko, baldintza hauek kontuan hartuta:

- Alarma egoerak eragindako zirkunstantziak.
- Deialdiaren xedea nabarmen ez aldatzea.
- Alarma egoeraren aurretik prestatutakoen antzeko izaera duten jarduerak izatea.
- Hirugarrenen eskubideei kalterik ez egitea.
- Eskabidea jarduerak egiteko epea amaitu aurretik egitea.

Seigarrena: oraingo aparteko osasun-alerta eta horrek deialdira aurkeztu diren proiektuen barruko jarduerak garatzeari begira dituen ondorioak kontuan izanik, dirulaguntza eman zaien elkarteek jabetu behar dute egiterik izan ez den edo egiterik izango ez den jardueren aurrekontua itzuli beharko dutela deialdiaren berariazko oinarrietan ezarritako justifikazio-epean.

Zazpigarrena: diruz lagundutako jarduerak gizarte etxeetako espazioetan egin nahi dituzten elkarteek horiek erabiltzeko eskabide ofiziala aurkeztu beharko dute gizarte etxeetan, eta erabiltzeko tasa ordaintzetik salbuesteko ere eskatu beharko dute, deialdiaren berariazko oinarrietako 2.4 puntuan zehaztutakoaren ildotik. Dena delako zentroan auzo elkarte bakoitzarekin adostu eta ebatziko da eskabidea, erabilgarri dauden daten eta espazioen arabera eta COVID-19a dela eta unean-unean emandako osasun arauak kontuan hartuz.

Zortzigarrena: gastua indarreko udal aurrekontuan horretarako dagoen partidaren kontura (1822.9242.489.54) egingo da.

Bederatzigarrena: dirulaguntza jaso ahal izateko, datuak Eusko Jaurlaritzaren Erregistro Ofizialean eguneratuta edukitzeko baldintza bete beharko da. Ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epea izango dute elkarte interesdunek izapide hori betetzeko.

Hamargarrena: adierazitakoaren ildotik, auzo elkarteei I. eranskinean zerrendatzen diren udal titularitateko aretoak erabiltzeko baimena ematen zaie beren jarduerak garatu ditzaten, urtebeteko epean, ebazpen hau jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuta, eta deialdi honetako baldintzen arabera.

Hamaikagarrena: interesa duten elkarteei ebazpenaren berri ematea, oinarri orokorretan adierazitako moduan, eta jakinaraztea horren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dutela Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta. Hala ere, alde aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, erabakia hartu duen organo berari zuzenduta, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta. Hori eginez gero, berraztertze errekurtsoa berariaz edo ustez ebazten den arte ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu. Ondoren, berariazko ebazpena bada, haren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunetik aurrera; berariazkoa ez bada, edozein unetan aurkeztu ahalko da, dagokion arauari jarraituz administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren biharamunetik hasita.

Hamabigarrena: deialdi honen barruan emandako dirulaguntzak ALHAOn, udalaren iragarki taulan, web-orrian eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzeko agintzea, onuraduna, emandako zenbatekoa eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak eskatutako gainerako informazioa zehaztuta.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 2an

*Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta
Gizarte Etxeen Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
MARILÓ MOVILLA RIVAS*

I. ERANSKINA

ELAKARTEAK	PUNTUAK, GUZTIRA	EMANDAKO DIRU- LAGUNTZA, GUZTIRA	UZTEN EDO BAIMENTZEN DEN ARETOA	OHARRAK
Adurtzakoak	136	8.490,00 euro	Heraclio Fournier, 30	Partekatua
Aranako	146	9.302,00 euro	Arana gizarte etxea Aragoi kalea, 7	Hirugarrena
Arelegi	124	7.512,00 euro		
Barrenkale	61	2.394,00 euro	Aitzogile kalea, 61	
Bizigarri	131	8.083,00 euro	Iparralde 2 gizarte etxea Behenafarroa z. g.	
Cauce vecinal	53	1.744,00 euro	Uribeguela kalea, 6	Partekatua Hirugarrena
Errekatxiki	113	4.200,00 euro	Jacinto Benavente kalea, 17 behea	
Errota zaharra	100	5.564,00 euro	Simón de Beauvoir Elkarteen etxea San Ignacio 8, 3. solairua	
Etxegorri	105	5.970,00 euro	Juana Jugán kalea Gazalbide merkataritza gunea, 41-49	Partekatua
Fava	83	4.000,00 euro	Simón de Beauvoir	Partekatua
			Elkarteen etxea	
			San Ignacio 8, 3. solairua 4. gela	
Gasteiz Txiki	129	7.921,00 euro	Eskola kalea, 9 behea	
Gazteluen Auzoa	115	6.428,00 euro	Ariznabarra kalea, 27	
Gure Auzune	126	7.677,00 euro	Lima kalea, 2 behea	
Hegoaldekoak	107	6.133,00 euro	Dantzari plaza, 5 behea	
Ibailakua	146	9.302,00 euro	Zehazteko	
Ipararriaga	147	9.384,00 euro	Francisco Javier Landaburu kalea, zenbaki gabe	
Judimendikoak	144	9.140,00 euro	Cola y Goiti kalea, 5-7, behea	
Kaleartean	136	8.490,00 euro	Avenida de los Huetos, 22	
Larkaiate	102	5.726,00 euro		
Salburua -Burdinbide	127	7.758,00 euro	Estrasburgo, 17 behea	
San Martín	139	8.733,00 euro	Vera Fajardo Margolaria kalea, 9	
Txagorribidea	122	7.149,00 euro	Juana Jugán kalea Gazalbide merkataritza gunea, 41-49	Partekatua
Uribenogales	134	8.327,00 euro	Uribeguela kalea, 6	Hirugarrena Partekatua
Zabalgana Batuz	134	8.327,00 euro	Zabalgana hiribidea, 46 behea	
Zazpigarren Alaba	133	8.246,00 euro	Amaia zentro soziokulturala Benito Pérez Galdós plaza, z. g.	
Zona Sur Olarizu	97	4.000,00 euro	Heraclio Fournier kalea,30	Partekatua
Emaita, guztira		180.000,00 euro		